

Lourdes Oñederra eta Jose Ramon Soroiz batu ditu Patrick Suskinden

‘Sommer jaunaren istorioa’ euskaratu du idazleak, eta aktoreak haren bertsioa antzeztuko du Durangon

XABIER MARTIN
Donostia

Antzerkia eta literatura elkarrekin etorri dira. Patrick Suskinden *Sommer jaunaren istorioa*-k Jose Ramon Soroiz eta Lourdes Oñederra elkartu ditu. Iturri beretik aritu dira bata zein bestea, eta emaitza bikoitza izan da. Alde batetik, Patrick Suskinden (Ambach, Alemania, 1949) liburuaren euskarazko itzulpena dago merkatuan,

Oñederrak egina eta Erein argitaletxearen argitaratua, eta, bestetik, Soroizek Txalo konpainiarekin batera ekoiztutako antzerki obra antzeztuko dute, hori ere *Sommer jaunaren istorioa* izenburuarekin.

Ez alferrik egitasmo biak aldi berean sortu ziren, proiektu bakar baten barruan. Soroizek antzerkirako katalanezko egokitzapena ikusia zuen, eta euskarazko itzulpena izanez gero oholtzara gustura eramango zuela otu zitzaion. Lourdes Oñederraren parte-hartzea lortu zuen orduan. Bere proiektu kutunean sartzeko konbentzitu zuen hura, eta antzerkikarako egokitzapen soil batean geratu gabe, liburu osoa euskaratu du



Lourdes Oñederra idazlea eta Jose Ramon Soroiz aktorea, atzo, Donostian. MADOI SOROA / ARGIAZI PRESS

Oñederrak: *Sommer jaunaren istorioa*.

«Bodega Donostiarrean hizketan ari ginela sartu ninduen [Soroizek] proiektu honetan», dio Oñederrak, «diluratu egin ninduen». Due-

la bi urte inguru gertatu zen hura, eta itzultzaileak izan du damurik noizbait, «tranparik egin gabe itzultzea zein zaila den frogatzeko aukera» izan baitu. Gaztelaniazko, katalanezko, ingelesezko eta frantseseko egokitzapenak baliatu ditu obra euskaratzeko. «Sufritu dut, eta ikasi dut», dio irribarre batekin egileak, baina ahaleginaren saria nekea baino handiagoa izan da, hala ere. «Obra zoragarria da, eta benetan pozik nago egindakoarekin».

Das Parfum (Perfumea) da Patrick Suskinden obra ezagunena, baina, Oñederraren ustez, *Sommer jaunaren istorioa* haren parekoa bada gutxienez, «sakontasuna duelako». Erein argitaletxeak gazte literaturako Perzebal bilduman kaleratu du, Semperen ilustrazioak tartekatuz, «baina helduentzako da», azaldu du itzultzaileak zalantza izpirik gabe. Ereineko editore Iñaki Aldekoak ere garbi utzi nahi izan du hori. Liburua «mugan» dagoen obra da, haren ustez, eta ilustrazioak ditu «lan originalaren arimarekin» leial jokatu duten adierazle; «Perzebal bilduman bakararra da ezaugarri horrekin».

Suskinden obra euskaratzeko lanean, gero antzezlanaren prestatu behar zela jakitea «akuilua izan da» Oñederrarentzat. Izan ere, Jose Ramon Soroizi zegokion zatia, antzerki obra alegia, abenduaren 6an emango dute lehen aldiz. Durangon izango da, Euskal Liburu

eta Diskoen Azokan. *Sommer jaunaren istorioa* «irakurri eta ikusi» egin behar dela iritzien dio itzultzaileak, «biak elkarren osagarri direlako».

ITZULPENA, ANTZEZLANAREN OINARRIA.

Liburua eta antzezlanaren batera plazaratzea nahi izan dute Lourdes Oñederrak eta Jose Ramon Soroizek. «Horretarako, zuk lana noiz bukatuko zain egon gara», azaldu dio aktoreak idazleari. Euskarazko itzulpena esku artean zutela, haren antzerkikarako egokitzapena egin dute, eta hortik abiatuta hasi dira obra muntatzen. Xicu Maso katalanak hartu du zuzendaritza lanaren ardura, eta Soroiz Bartzelonon izan da harekin lanean azken hilabete eta erdian. «Ez daki euskaraz, baina obra argi dauka buruan, katalanezko egokitzapena urte askoan zuzendu baitu. Hitzak ez dio balio, arnasa eta intentzio orokorrari erreparatzen dio, eta oso zorrotza da».

Masok katalanezko antzerkikarako egokitzapena egina bazuen ere, Oñederraren itzulpena erabili da obra muntatzeko. Itzultzailearen aritu zen zuzendaria euskarazko obrak nondik nora joan behar zuen zehazteko. Datorren astean *Sommer jaunaren istorioa* antzezlanaren inguruko azalpen gehiago emango ditu Soroizek berak, Txaloko kideekin batera, baina aurreratu du bera dela obrako aktore bakarra eta ordu eta erdi inguruko iraupena daukala lanak. «Katalanezko antzerkia duela 13 urte hasi ziren antzeztzen, eta gertatu da orduan ikusi zuten mutil koskorak berriro itzuli direla obra ikustera». *Sommer jaunaren istorioa*-ren berezitasuna nabarmendu du Soroizek. «Umeen logikarekin kontatuta dago istorioa, 12-13 urtekoek ordu eta erdi jarraitzeko moduan, baina mamia ez da umeentzat bakarrik». Oñederra bat dator horrekin: «Haurren bukatu gabeko esaldiak osatu dago narrazioa, baina heldu baten pentsamendutik».

Erabili harpidedun txartela



Baliatu bertako kupoi eta deskontuez



2007ko I eta II. katalogoak ez badituzu eskuratu, deitu:
943 30 43 45

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

«Damurik izan dut noizbait, tranparik egin gabe itzultzea zein zaila den frogatzeko aukera izan baitut»

LOURDES OÑEDERRA
IDAZLEA

«Umeen logikarekin kontatua dago obra, baina mamia ez da umeentzat bakarrik»

JOSE RAMON SOROIZ
AKTOREA